


## Martutene



Argazkia: Imanol Olegi

# Autobia aldatzear?

## EAJ-EAren proposamenak ez du gehiengorik Foru Aldundian

Okendotegi, Urumeako autobiak kaltetutakoen elkar-teen proposamenak aurrera egin dezake. Autobiaren ibilbide ofizialak EAJ-EAren babesa besterik ez du, eta Okendotegik aurkeztutakoa aldiz, PSE, PP eta EH alderdiek begi onez ikusten dute.

Iritzi kontrajarri horiek agerian geratu dira aste honetan Aldundiko Errepide sailak egindako bileran. EAJK eta EAK Okendotegi elkarteak proposatutako ibilbide aldaketa onartu beharko dute Batzar Orokorren batzarrean, alderdi guztiek aste honetako bilera informatiboan azalduetako jarrerari eusten badiot.

### Kaltetuak itsaropentsu

Okendotegi elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu ofizia-

lak kalte handiak eragingo lituzkeela salatu zuen aspaldi. Elkarre honen iritziz, egitasmo ofizialarekin 9 baserri bota eta 100 bat lagun kaltetuko lirakeke. Arrazoi berarengatik hain zuzen, proiektu ofizialaren aurka egin dute aipatu hiru alderdiek: EH, PP eta PSEk. Okendotegi elkar-teko Simon Aduriz itzaropen osoz agertu zaigu berri honen ostean. *"Oso albiste ona izanda, baina hau berretsi egin beharko dute aipatu alderdiek Batzar Orokorren batzarrean"*. Etxenike PSEko ordezkariak, Okendotegiren proposamena sakontzea begi onez ikusi du Simon Adurizek esanetan. *"Ziur gaude gure proiektua, ofiziala baino askoz hobea dela. Dena den, gurea ere hobetu badaiteke eta kalte gutxiago egiten duen beste bat proposatzen bada, horren alde egingo dugu"*.

# Antzerkira IRUTXULOekin

**Maskarada** taldearen **"Ikaro"** antzezlanak ikustera joateko 20 sarrera ditugu zozketatzeko. Sarrerak hilaren 29 eta 30eko emanaldietarako dira. Martxoaren 27an IRUTXULOko erredakziora deitzen duten lehen hamar lagunek bina sarrera irabaziko dituzte.

## Azkar ibili !!

